



Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2024ko otsailaren 29a

LEKUA: Batzar gela

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

IDAZKARIA: Garazi Arraibi Larrea

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

1.- Aurreko Osoko Bilkuren aktak onartzea, hala badagokio

Ahobatez onartzen dira 2023ko abenduko akta eta 2024ko urtarrileko ez ohiko bileraren akta.

2.- Dekretuen berri ematea

Idazkariak Dekretuak zeintzuk izan diren azaldu ondoren, ez dago galderarik.

3.- Faktura zerrenden berri ematea

Izalberrik galdetzen du ea jaietako faktura guztiak pasatu diren eta ezetz erantzuten zaio; oraindik batzuk ez direla sartu eta beste batzuk ez direla ordainketa fasera heldu.

4.- Eudelek proposatuko langileen soldataren %0.5eko igoera onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen da EUDELeK proposatzen duena:

*Hori guztia ikusita, eta 31/2022 Legeak ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, EUDELeK egokitzat jotzen du euskal udalei honako **GOMENDIO** hau ematea:*

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea.

Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

5.- Udaleko lan poltsetako deialdia egiteko moduan aldaketa onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen da Udal poltsen kudeaketako arauan aldaketak egitea, deialdiari, indarraldiari eta bajei dagokionez. Hori horrelaz, araua horrela geratzen da

Idiazabalgo Udaleko lanpoltsen kudeaketarako irizpideak

1. Poltsa propioen eta deien osaera.

Lan-poltsa propioak osatzen duten lan-poltsaren kategorian Idiazabalgo Udalak deitutako hautaketa-prozesuren bat gainditu duten pertsonak osatuko dituzte. Hautaketa-prozesu bat amaitzen den bakoitzean, ateratzen den poltsa argitaratuko da.

Lan eskaintza bat dagoenean, zerrendako kideei mezua bidaliko zaie, e-mailez, eta bi eguneko epea izango dute, bitarteko telematikoen bidez adierazteko ordezkatza egiteko interesik duten edo uko egin nahi dioten eskaintzari.

Ordezkatza eskainiko zaio zerrendan interesa erakutsi eta libre daudenen artetik hurrenkeraren arabera lehenengo dagoen izangaiari.

Ordezkatzaaren esleipendunak 2 egun baliouduneko epea izango du (esleipena jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita) kontratua sinatzeko. Epe horretan ez bada kontratua sinatzera agertu, zerrendako hurrengoari deituko zaio.

2. Indarraldia.

Irizpide hauen aldaketa onartu ondoren sortzen diren lan-poltsen indarraldia 5 urtekoa izango da, eta organo eskudunaren irizpidearen arabera luzatu ahal izango da.

3. Izendapenen eta kontratuen iraupena.

Kontratu edo izendapenen iraupena, bistakoa denez, kontratu edo izendapenen xede den administrazio-egintzak jasotzen duena izango da. Horiek erabakitzen dituzte, baina iraupen edo kategoria desberdineko kontratu bat baino gehiago izanez gero, blokean eskainiko dira, lehentasun-ordenaren arabera, lehentasun onena duen hautagaiak bere eskubideari dagokiona aukera dezan.

Behin kontratua edo bitarteko funtzionarioen aldia amaituta, hautatutako pertsona atera zen poltsara itzuliko da, zegoen posizio berean.

6.- Telelanaren araubidea onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen da telelanaren araubidea.

HITZAURREA

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47 bis artikulua adierazten duenez, telelan- tzat hartzen da urrutiko zerbitzuak emateko modalitate bat, baldin eta modalitate horretan lanpostuaren eskumen-dukia Administrazioaren bulegoetatik kanpo gara badaiteke, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz, betiere zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute. Zerbitzu hori bera- riaz baimendu beharko da eta modalitate presentzialarekin ba- teragarria izango da; borondatezkoa eta itzulgarria izango da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

Modalitate hori 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua garatzeko ematen diren arauen arabera egin beharko da. Arau horiek negoziozko kolektiboaren xede izango dira dagokien eremuan, eta irizpide objektiboak izango dituzte zerbitzua emateko moda- litate horretan sartzeko. Horrek guztiak lana hobeto antolatzen lagundu beharko du, helburuak identifikatuz eta helburuak bete diren ebaluatuz. Kontuan hartzeko baita Euskal Funtzio Publikoaren 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa.

Telelanaren bidez lan egiten duten langileek modalitate presentzian lan egiten duten gainerako langileen betebeharrak eta eskubide indibidual eta kolektibo berberak izango dituzte, aplikatzeko den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia barne.

Azaldutako guztiagatik, zerbitzua modalitate ez-presentzian edo telelanean ematea arautzen da, honako printzipio hauen arabera:

- Udal-langileek zerbitzua emateko baliozko modutzat hartzea.
- Modalitate hau borondatezkoa izatea.
- Modalitate honen izaera mistoa.
- Baldintza itzulgarria da, eta, beraz, langileak edozein unetan eman ahal izango ditu bere zerbitzuak bere lanpostura bertaratuta.
- Telelana egiten duten langileek eta gainerako langileek eskubide eta betebeharrak legal eta konbentzionalak berdinak izatea, eta bermatzea ordainsanarekin ez dutela inolako aldaketarik izango, eta ez zaiela kalterik egingo prestakuntzarako, gizarte-ekintzarako, lanbide-sustapenerako aukeretan, ez eta haien bestelako eskubideetan ere.
- Telelana berrkontratzen duten langileek deskonexio digitalerako eskubidea izango dute, legez edo hitzarmenez ezarritako lan-denboratik kanpo beren atsedeen-denbora, baimenak eta oporrak errespetatuko direla bermatzeko, bai eta norberaren eta familiaren intimitatea ere.
- Telelana bateragarria da lanaldia murriztearekin, lanaldi presentziala egiten duten langileen baldintza berberetan.

Telelana ezartzeko eta arautzeko erregelamendua.

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen xedea da udal-langileek zerbitzua modalitate ez-presentzian ematea arautzea, telelanaren formularen bidez.

2. artikulua. Telelanaren kontzeptua.

Telelana urrutik lan egiteko modalitate bat da, non udaleko langileek beren lanpostuaren eduki funtzionalaren zati bat Idiazabalgo Udalaren bulegoetatik kanpo garatzen duten, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ahalbidetzen badute.

Telelanaren helburuz lanpostua hobeto eta modu modernoagoan betetzea da, eta horretarako teknologia berrien erabilera eta helburuen arabera kudeaketa sustatzen da.

Modalitate hau borondatezkoa eta atzeragarria izango da.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

Erregelamendu hau Idiazabalgo Udaleko langile guztiei aplikatuko zaie, funtzionarioak diren ala laboralak diren alde batera utzita, baldin eta lanpostuaren ezaugarriak lan-modalitate honekin bateragarriak badira.

4. artikulua. Telelanaren bidez aritu daitezkeen lanak:

Telelanaren bidez bete daitezkeen lanak honakoak dira:

- Proiektuen azterketak.
- Aholkularitza juridiko eta teknikoak.
- Txostenak, araudiak eta lan-prozedurak egitea.
- Informazio-sistemen analisia, konfigurazioa, mantentzelanak eta euskarria.
- Dokumentuak itzultzea, idaztea, zuzentzea eta tratatzea.
- Informazio eta komunikazio sistemen kudeaketa.
- Aplikazio informatikoen garapena.
- Sail bakoitzaren irizpide objektiboaren baitan, telelanaren bidez bete daitezkeen bestelako eginkizunak.

Aldiz, ezin izango dira telelanaren modalitatean bete eguneroko zerbitzu presentziala behar dutenak, eta, zehazki, honako hauek:

- Herritarrei arreta eta informazioa emateko lanak.
- Udaltzaingoak lanak.
- Brigadako lanak.
- Garbiketako lanak.
- Liburutegiko lanak

5. artikulua. Betekizunak.

Telelana eskatu ahal izango dute programa honen aplikazio eremuan sartzen diren eta honako betekizun hauek betetzen dituzten langileek:

- a) Aurreko artikulua arabera onargarria den lanetan aritzen denak.
- b) Zerbitzua aktiboan egotea eta gutxienezko urtebeteko antzintasuna izatea lanpostu horretan.
- c) Lanpostuko eginkizunak betetzeko behar diren ezagutza informatiko eta telematiko teoriko eta praktikoa izatea.
- d) Telekomunikazio-sistema (Internetarako sarbidea) egoztea izatea, lana behar bezala garatzeko modukoa, eta, gainera, sistema horiek Udalak eskatzen dituen ezaugarri teknologikoak eta segurtasunekoak betetzea.
- e) Telelanean jarduten duten langileek komunikazio sistema bat jarriko dute eskura telelaneko lanaldian zehar lokalizatu behar badira, zerbitzua ematean behar den komunikazio mantentzeko.
- f) Saileko arduradunaren adostasuna izatea eta sailaren antolaketa moldatzea.
- g) Udalaren ordutegi orokorraren baldintzak bete beharko dira, baita langile bakoitzaren sailerako ezarritakoak eta telelanaren modalitaterako erregelamendu honetan ezarritakoak ere. Gutxienez 8:30etatik 14:00ak arte lanean eta komunikatuta egon behar da.
- h) Nolanahi ere, ordutegia kontrolatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dira.

i)

Laneko arriskuen prebentzioaren arloan eskatutako baldintzak betetzea.

Baldintza horiek zerbitzua telelanaren modalitatean ematen den bitartean bete beharko dira.

6. artikulua. Telelana baimentzeko prozedura.

1. Udal-langileek zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimen-eskaera aurkeztu beharko dute.
2. Eskaera hori Alkateari bidaliko zaio, eta horrek dagokion proposamena egin behar du hamar (10) laneguneko epean. Telelanak bermatu behar du lanpostuaren helburuak betetzen direla eta horiek zein erataria ziurtatuko diren jaso beharko du proposamenak.

3. Aldi berean, Informatika Arloak telelana egingo den tokia-riaren telekomunikazio-sistemaren egokitasuna ebaluatuko du, eta, emaitza ezezkoa bada, idatziz jakinaraziko du, arrazoia adieraziz, baita alternatibak ere, halakorik egonez gero.

4. Prozesu hori eskaera baimentzeko edo ukatzeko emandako ebazpen arrazoituarekin amaituko da. Eskaera jaso eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da ebazpen hori.

Eskaera berriak jakinaraziko zaizkio langileen ordezkariari.

7. artikulua. Ukatzeko arrazoiak.

Telelanaren modalitatean zerbitzua emateko baimen-eskaera ukatuko da, honako arrazoi hauengatik:

- a) Eskatzaileak 5. artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- b) Zerbitzuaren beharrak behar bezala estalita ez geratzea, saileko arduradunaren txostenean egiaztatuta.
- c) Informatika arloak telelanaren lekuko azpiegitura teknologikoak edo konektibitatekoak ez direla egokiak egiaztatzea.
- d) Antolaketa-arrazoiak, behar bezala egiaztatuta.

8. artikulua. Telelanaren iraupena eta asteko lanaldiaren banaketa.

1. Telelanaren iraupena:

Telelanaren iraupena eta probaldia izatekotan, Alkatearen ebazpenean jasoko dira.

Hasieran emandako baimenaren iraupena luzatu ahal izango da, hasieran emandako iraupen bereko aldietan, saileko arduradunak kontraktorik adierazi ezean.

Egoera puntuatarako, telelaneko jardunaldiak baimendu ahal izango dira, saileko arduradunak gainbegiratu eta Alkatearen oniritzirekin, betiere alde aurretik justifikatutako arrazoia badago.

2. Zerbitzua amaitzeko arrazoiak:

Zerbitzuak aurrez aurre ematen ari ez diren udal langileek honako arrazoi hauengatik itzuli beharko dute beren lanpostura:

- Bertaratu gabeko modalitateari edo telelanari borondatez uko egitea.
- Zerbitzuaren beharrengatik.
- Ezarritako helburuak ez betetzea.
- Ezarritako baldintzak eta betekizunak nabarmen aldatzen dituzten gerora sortutako arrazoiengatik.
- Asteko lanaldia modu frogagarrian ez betetzea.

— Udalak jarritako kontrol-sistemen erabilera ez betetzeagatik.

3. Lanaldiaren banaketa:

a) Zerbitzu ez presentziala eman ahal izango da astean gehienez 3 eguneko bitartean. Gainerako egun guztiak, udal langileek bere eginkizunak modu presentziala ohiko orduetan egin beharko ditu. Edozein kasutan, egoeren arabera, aldaketak egon daitezke.

b) Egun ez presentzialak Alkateak zehaztuko ditu, aurrez bi aldeen artean adostu ondoren eta zerbitzua ahalik eta ondoen ematea irizpide izanik.

c) Lanaldia aurrez aurreko lanerako dagoen berbera izango da, hasiera eta bukaerako ordutegia aldatzeko aukera egon arren. Hala ere, 8:30etatik 14:00etara bitarteko nahitaezko ordutegia ezartzen da, eta bertan etengabe mantendu beharko da

konexioa, bai telematikoa, bai telefonikoa. Hori guztia, eremuko enkargatua lanaldi presentzian eta ez presentzian langile arteko lan zaila koordinatu ahal dela.

Mugikorretik fitxatuko da.

a) Oro har, eguneko lanaldia ezin izango da zatitu bi moda- litateetan lan egiteko.

9. artikulua. Aldi baterako etetea.

Aurrez aurrekoa ez den lan-modalitatean zerbitzua emateko baimena aldi baterako eten ahal izango da, enpleguari edo zerbitzuaren beharrei eragiten dieten gorabeherengatik.

Espediente hori izapidetzean, entzunaldia emango zaio era- gindako pertsonari. Justifikazio inguruabarrak egiaztatu ondo- ren, alkatetzak baimena eteteke ebazpen arrazoitua emango du, etete epea adierazita.

10. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

Telelanaren modalitatean zerbitzuak ematea borondatezkoa da, eta eskatzen duen pertsonak gainerako langileen eskubide eta betebeharrak berberak izango ditu.

Telelanak ez du aldaketarik ekarriko lan-baldintzei eta lanbi- de-karrerari dagokienez.

Deskonexiorako eskubidea bermatuko da

11. artikulua. Zereginak eta emaitzak zehaztea.

Telelanean egin beharreko zereginak eta lortu beharreko emaitzak sail bakoitzeko arduradunaren eta langilearen artean adostuko dira, eta arduradun politikoak onartu beharko ditu. Ze- reginak aldi berean behin berrikusiko dira modalitate horrek irauten duen bitartean.

Telelangileak egindako lanen eta lortutako emaitzen zerren- da bidali beharko dio aldizka bere saileko arduradun tekniko eta politikoari.

Sail bakoitzeko arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu bere ardurapean dauden langileek modu koordinatuan lan egin ahal izan dezaten, asteen zehar lanaldi mota txandakatu, edo bakoitzaren eginkizunak ondo zehaztu eta, hala badago- kio, behar berrietara egokituz.

12. artikulua. Behar materialak.

1. Telelangileek jarriko dute telekomunikazio-linea (Inter- neterako sarbidea), erregelamendu honen 5.d) atalean adierazi- takoaren arabera.

2. Hardwarearen eta softwarearen ekipamendu informati- koari dagokionez (ordenagailu eramangarria, CPUa, sistema era- gilea, monitorea, teklatura, sagua, routerra, telefono-terminala, kableak eta konektoreak, etab.), eskatzaileak erabaki ahal izango du bere jabetzako gailuak erabiliko dituen edo udalak ematen dizkionak, baldin eta eskuragarri badaude.

3. Pertsonak bere gailuak erabiltzea erabakitzen badu, bere gailu partikularretarako urruneko sarbidea emango dio informa- tika-arloari, telelan-sistema konfiguratzeko helburu bakar eta es- klusiboarekin. Eskatzaileak gainbegiratu du sarbide hori, eta hark eskatuta baino ez da errepikatuko, denboran zehar sor dai- tezkeen arazo edo behar informatikoak konpontzeko.

4. Debeztatuta dago Udalak emandako gailuak manipula- tzea (programak instalatzea, beste gailu batzuekiko konexioa, etab.). Udalak emandako gailuen erabilera ahalik eta gehien mu- gatuko da telelana ez den beste helburu batzuetarako.

Gailu horiek Udalarari itzuli beharko zaizkio, mailegatu ziren baldintza berberetan.

13. artikulua. Datu pertsonalen babesari.

Modalitate presentzian bezala, telelangileak datu pertso- nalen babesari buruzko araudia beteko du, eta behar bezalako zuhertasuna izango du ezagutzen dituen gaiak dagokienez.

14. artikulua. Laneko arriskuen prebentzioa.

Modalitate ez-presentzian lan egiten duen pertsonak une oro beteko ditu lan-arriskuen prebentzioaren arloan eskatzen diren baldintzak.

Horretarako, Laneko Arriskuak Prebentzeko Zerbitzuak tele- lana egingo den espazioaren arriskuen ebaluazio egokia egingo du, baita telelana egiteak eragin ditzakeen arrisku psikosoziale- na ere, eta horien berri emango dio langileari.

Udalak ez ditu inolaz ere bere gain hartuko lanpostua lan- arriskuen araudira egokitzearen ondoriozko kostuak.

15. artikulua. Gastuak

Eskatzaileak bere gain hartuko ditu zerbitzua etxean emateak dakartzan gastuak (argia, Internetarako konexioa, etab.).

16.artikulua.- Ebaluazio Batzordea

Ebaluazio Batzordea izango da arduraduna telelanaren kudeaketa egokia bermatzeko.

Azken xedapena.

Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

7.- 2021-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen dira aldaketak.

481.00.231.00	Aizan	2.000	Zuzenekoa	
481.00.334.01	Antzar-Crew	2.000	Zuzenekoa	
481.01.334.03	Beneditar Fundazioa	687,9	Zuzenekoa	
481.00.341.00	Kirol Elkartea	45.100	Zuzenekoa	
481.00.335.00	Illati Elkartea	10.000	Zuzenekoa	
481.00.230.00	Garapen Laguntza Lehian	25.000	Lehiaketa	
481.02.335.01	UEMA	8.480,91	Zuzenekoa	

8.- Lazkaoko Beneditarrekin Hitzarmena onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen da Hitzarmena sinatzea.

HITZARMENA:

BISITA GIDATUAK IDIAZABALDARRENTZAT

ELKARTU DIRA

Rufino Mujica Mendia jauna, Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren lehendakaria, aipatu fundazioaren izenean.

Iñaki Alberdi Iparragirre jauna, Idiazabalgo alkatea, aipatu Udalaren izenean.

ADIERAZI DUTE

Lazkaoko Beneditarren Fundazioa 2011n sortu zela, eta bere helburuen artean daudela Euskal Herriko ondarea ikertzea eta zabaltzea, eta zehazki, Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren baitan bildutako eta gordetako fondoa zuzentzea, kudeatzea, mantentzea, zabaltzea eta gizarteratzea (Ikus I eranskina).

Azken urteetan Lazkaoko Beneditarren Fundazioa ahalegin berezia egiten ari dela bertan gordetzen diren funtsak erabilgarri jarri eta ezagutzera emateko, eta gizarteratze lan horren baitan, Goierriko Udalei hitzarmena sinatzea proposatu diela, bisita gidatuen bitartez, goierritarrek zentroan gordetzen diren funtsak ezagutu ditzaten. Eta hori bera proposatu diola, baita ere, Idiazabalgo Udalari.

HITZARMENA

LEHENA: HELBURUAK

1. *Lazkaoko Beneditarren Fundazioa idiazabaldarrei ezagutzera ematea.*
2. *Idiazabaldarrak dokumentazio-gunean dagoen ondare dokumentalaren balioaz jabetzea eta balioan jartzea.*
3. *Idiazabaldarrak dokumentazio-gunean dagoen ondarearen erabilgarritasunaz kontzientzia hartzea.*
4. *Dokumentazio-gunearen email e sarea zabaltzea idiazabaldarren artean.*

BIGARRENA: HITZARMENAREN XEDEA

1. Xedea

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak bisita gidatuak antolatuko ditu Idiazabalgo elkarte, talde eta norbanakoentzat. Behar hainbat bisita egingo dira, 10/15 pertsonako taldetan.

2. Epealdia

Bisitak 2024-2027 urteetan zehar egingo dira, taldeekin adostutako egun eta ordutegietan.

3. Lekua

Bisitak Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren eraikinean eta Lazkaoko Beneditarren Bibliotekan egingo dira.

4. Gidariak

Bisitak Juan Jose Agirrek (LBFren zuzendariak) eta Miren Barandiaranek (dokumentazio gunearen arduradunak) gidatuko dituzte.

5. Iraupena

Bisitak 90 minutu inguru iraungo dute.

6. Hizkuntza

Bisitak euskaraz egingo dira oro har, baina, eskaria egonez gero, gazteleraz edo ele bietan ere antolatuko dira.

7. Gidoia

Bisitak honako gidoia izango dute:

- 1) *Lazkaoko Beneditarren Fundazioa (50 min.) – eraikin berria*
 - *Ongi etorria*
 - *Aurkezpena: LBF eta Beneditarren Biblioteka*
 - o *Zer dira*
 - o *Historia*
 - *Behe solairua: ikertzaileen gela eta bulegoak*
 - o *Zentroan egiten den lana*
 - *Lehen solairua: depositua eta erakusketa txikia*
 - o *Material motak*
 - o *Kontserbazioa*
 - o *Erakusketa txikia (hainbat materialen aurkezpena, taldeen interesen arabera)*
- 2) *Lazkaoko Beneditarren Biblioteka (40 min.) - monasterioa*
 - *Monasterioko biblioteka orokorra*
 - o *Inkiszioak zentsuratutako obrak*
 - o *XVIII-XIX. mendeetako liburuak*
 - *Euskal Biblioteka*
 - o *Talde interesen arabera hautatutako liburuen aurkezpena*

8. Bisiten kudeaketa

Bisiten kudeaketa Lazkaoko Beneditarren Fundazioak egingo du, hasieratik bukaerara arte.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak egingo duen publizitateaz gain, Idiazabalgo Udalak bereak dituen komunikazio tresnak erabiliko ditu hitzarmenari eta bisitei ikusgarritasuna emateko.

HIRUGARRENA: DIRU-LAGUNTZA

1. Diru-laguntza

Idiazabalgo Udalak biztanleko eta urteko 0,3 €-ko diru-laguntza emango dio Lazkaoko Beneritarren Fundazioari. 2024ko kalkuluen arabera, 687,9 €

Idiazabalgo Udalak 2024tik 2027ra bitartean emango dio aipatu diru-laguntza Lazkaoko Beneritarren Fundazioari.

2. Zuritzea

Urtea amaitu baino lehen, Lazkaoko Beneritarren Fundazioak hitzarmenaren baitan burututako jardueren memoria aurkeztuko dio Idiazabalgo Udalari. Memoria horretan zehaztuko dira egindako jarduerak eta jarduera horiei egotzitako gastuak –hau da, fundazioko langileen dedikazioa–.

I ERANSKINA:
LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOA

JATORRIA

Lazkaoko Beneditarren Fundazioa (LBF) 2011n sortu zen, Juan Jose Agirre monje beneditarrak urtetan liburu eta dokumentazio bilketaren inguruan egindako lanari babes eta segida emateko. Ibilbide luzea dago fundazioaren atzetik, 1973an hartu baitzuen Agirrek Lazkaoko Beneditarren Monasterioko biblioteka zuzentzeko ardura. Biblioteka zuzendu bakarrik ez, gerora Euskal Biblioteka deituko zenaren oinarriak ere jarri zituen, monasterioan aurkitu zituen liburu eta aldizkariekin eta gerora bilduko zituenekin. Handik gutxira, gainera, beste liburutegi eta artxiboetan artean gordetzen ez ziren dokumentuak biltzeari ekin zion: panfletoak, foiletoak, kartelak, pegatinak, egutegiak... Eta arreta berezia eskaini zion erbestean eta klandestinitatean ateratzen zen guztiari.

Hala, Agirrek artxibo handi bat sortzeari ekin zion, Euskal Herriarekin erlazionatutako funtsekin, askotariko euskal funtsekin beti ere; eta Beneditarren Monasterioan kokatu zuen, Lazkaon. Materiala biltzeko boluntario sarea egituratu zuen bere inguruan, eta denborarekin alderdi politiko, sindikatu eta beste hainbat erakundetan partaide izan zirenen paperak eta artxiboak jasotzen hasi zen. Horrekin guztiarekin batera, lehen antolaketa eta deskribapen lanak egin zituen. Eta laster izan zituen ikertzaileak ate-joka. Euskal erakundeen eta gizartearen errekonozimendua ere berehala etorri zen.

FUNDAZIOA

Lazkaoko Beneditarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalak sinatutako hitzarmen bati esker, 2010ean eraikina altxatu zuten monasterioaren ondoan Agirrek bildutako dokumentazioaren parte handi bat bertan gordetzeko. 2011n aipatu hiru erakundeek Lazkaoko Beneditarren Fundazioa sortu zuten, Lazkaoko Beneditarren Fondoa deiturikoa gorde, osatu, garatu eta gizartearen esku jartzeko, hau da, Agirrek egindako lanari segida eman eta garai berrietara egokitzeko.

LBFn duela bost hamarkadatik hona bildutako materiala dago: aldizkariak (8.000 titulutik gora, XIX. mendetik gaur egunera bitartekoak), kartelak (80.000 inguru, 1970etik gaur egunera artekoak batez ere), pegatinak (35.000, mota eta gai askotarikoak), bilduma dokumentalak (erakunde eta gaika antolatuta) eta dohaintzan jasotako artxiboak (pertsonek eta erakundeek). Monasterioan dagoen Beneditarren Biblioteka handia ere kontsulta daiteke LBFn. Guztia ere Euskal Herriko historiaren azken mendea ezagutzeko, ezinbestekoa.

9.- Alokabiderekin etxebizitza hutsak mobilizatzeko akordioa onartzea, hala badagokio.

Izalberrik dio Udaleko jabetzakoak diren etxe hutseei horrelako irtenbide bat ematea ondo legokeela eta galdetzen du ea zeintzuk diren etxe horiek. Alkateak, zeintzuk diren zehaztu ondoren, konponketak egiteko beharra daukatela dio eta egia dela irtenbidea ematea ondo legokeela.

Iñaki Arriaranek komentatzen du beste aukera bat izango zela Alokabideri ematea etxe horiek; edozelan ere, ondo aztertu beharreko gaia dela azpimarratzen du.

Alokabiderekin etxebizitza hutsak mobilizatzeko akordioa sinatzea ahobatez onartzen da.

*Etxebizitza hutsak mobilizatzeko Alokabidea SA eta Idiazabalgo Udalaren arteko akordioa
Idiazabalen, 2024ko martxoaren 5ean*

BERTARATUKOAK

ALDE BATETIK, **Patricia Ainhoa Val Hevia andrea**, Alokabideko zuzendari nagusia.

BESTETIK, **Iñaki Alberdi Iparragirre jauna** Idiazabalgo udaleko Alkate- Udalburua

AGERTU DIRA

Lehenengoa, ALOKABIDE S.A.ko zuzendari nagusi gisa (aurrerantzean Alokabide), erakunde honetako 2016ko Abenduaren 20ko Batzar Orokorreko Akordioan adostuta. Alokabidek Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko sozietate publiko gisa jarduten du, aurrerantzean "Saila".

Eta bigarrena Idiazabalgo udaleko (aurrerantzean, "Udala"), Alkate-Udalburu gisa, 2024ko otsailaren 29an burututako saioan, Udaleko Osoko Bilkuraren Erabakian agiri honen xedatzerako ahaldundua.

Agertutako biek Kolaborazio AKORDIO hau egilesteko gaitasun legal nahikoa eta beharrezkoa onartzen dute, eta xede horretarako

I.- Biztanleriaren sektore sozial garrantzitsuek etxebizitza duin eta egokirako eskubidea garatzeko aukerarik ez dutenean Euskal Autonomi Erkidegoan, eta zehazki, udalerrri honetan dagoen etxebizitza huts kopuru altuak, Saila esku-hartze publiko zuzena egitera eramanean du beharra duten bizikidetzak unitateei zuzenduta etxebizitza hauek merkaturatzeko helburuarekin.

II. Esku-hartze honen barruan BIZIGUNE "Etxebizitza Hutsen Programa" eta ASAP "Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa" kokatzen dira. Lehenengoa Alokabidek kudeatzen du eta bigarrena, Alokabide tartean dagoen kolaboratzaile sare baten bitartez abian jarri da. Bien helburua, beharra duten herritarrentzat etxebizitza hutsen mobilizazioa sustatzea da, xede honetarako sortu behar diren lagapen harremanei segurtasun juridiko eta ekonomikorako erregimen publikoa eskainiz.

III. Udalak bi programa hauek dinamizatzea ezinbestekotzat jotzen du, xede honetarako Sailak, Alokabideren bitartez, eskaintzen dituen bitartekoekin kooperazioa lortzeko bitarteko ekonomiko eta pertsonalak eskainiz. Hauen helburua beharra duten pertsonentzako ahalik eta etxebizitza huts kopuru handiena eskuragarri jartzea izango da.

IV.- Adierazitako helburuen instrumentazio egokia lortzeko aldeek Kolaborazio AKORDIO hau formalizatzen dute, hurrengo jarraituta:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Kolaborazio AKORDIO honen helburua udalerrirako etxebizitza hutsen programen kudeaketa sustatu eta indartzea da, xede honetarako Sailak, Alokabideren bitartez, zein Udalak hartzen dituzten konpromisoak ezarriz.

BIGARRENA.- Aurreko klausulako xedeetarako Alokabidek honako konpromisoak hartzen ditu:

a) BIZIGUNE "Etxebizitza Hutsen Programa" arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak eta ASAP programa erregulatzen duen irailaren 17ko 144/2019 Dekretuan ezarritakoa betetzea

b) Bi Programen kudeaketa zerbitzuak, uneoro, Udalarekin koordinatzea, herritarren arreta egokia bermatu eta etxebizitza hutsen lagapen ahalik eta handiena burutzeko. Aipatutako koordinazioak honakoa jasoko du:

- BIZIGUNE eta ASAP Programekin lotutako informazio publikorako telefono bakarra (900 linea) mantendu.
- Udalak era berean behatu beharko duen Euskadiko udalerrri guztietarako marko bateratua ezartzea. Aipatutako marko bateratu honek prozedura homogeneo, formulario bateratuak, etxebizitzagatik jaso eta maizterrak ordaindu beharreko errenta zehazteko balioztatzea eta Alokabidek EAEko udalerrri guztietarako modu koherentean garatzen dituen espedienteen epe berdinak eta kudeaketa jasoko ditu. Marko bateratu honetatik kanpo, eta zehazki, BIZIGUNE Programari lotu nahi zaizkion etxebizitza hutsen jabe edo titularren geureganatzea indartzeko zerbitzuaren antolaketari dagokionean, Udalak erabateko autonomia izango du.
- Alokabidek bakarrik erabakitzea etxebizitzetatik zeintzuk izan daitezkeen Programetan onartuak, programa bakoitzeko araudi erregulatzailean adierazitako baldintza, irizpide tekniko, eskaeraren ezaugarri, uko egiteen zergatien aurre- analisi eta abarren arabera.

HIRUGARRENA.- AKORDIO honen lehenengo klausularen xedera Udalak honako konpromisoak bere egiten ditu:

a) Aurreko klausulan adierazitako modu koordinatuan Saila eta Alokabiderekin kolaboratzea. Xede horietara udalak honako konpromisoak bere egiten ditu:

- Interesa duten pertsonen BIZIGUNE eta ASAP programen eduki eta baldintzen inguruko informazioa eskaini
- Sailak eta Alokabidek igorritako eskaera inprimakiak jabeen eskaintza.
- Udalerrian kokatutako etxebizitza hutsen onarpen prozedurak jabeekin hastea bilera informatibo baten bidez
- Udalerriko etxebizitza eskatzaileei sarbide baldintza eta esleipen sistemen inguruan informazioa eskaini, eta hauek Etxebide Euskal Etxebizitza Zerbitzuan izen ematea sustatu.
- ASAP programari lotutako etxebizitza eskatzaileei informazioa eskaini eta programa honetako etxebizitzetara sarbidea erraztu.
- Alokabideko arlo sozial eta udalaren zerbitzu sozialen arteko esku-hartze koordinatua eta antzematea erraztu, izaera prebentibo zein berehalako esku-hartze izaera duten harrera sozialeko bitartekoak eskaintzea eskatzen duten esleipendun edo maizterrak dauden egoerarako.
- Sailarekin eta Alokabiderekin koordinazio iraunkorra mantendu.

b) Aurreko atalean adierazitako xedeetarako, eta programa hauek sustatu eta etxebizitza hutsen antzematea indartu asmoz, Udalak behar diren bere langile eta egiturako bitartekoak eskaintzeko konpromisoa hartzen du. Atal honetan adierazitako bitartekoak Udalaren esku egongo dira, Eusko Jaurlaritzako Sailak eta bere menpe dagoen Alokabide sozietate publikoa xede honetarako erantzukizun orotik salbuetsita geratuko direla. Halaber, BIZIGUNE eta ASAP programetako eduki eta baldintzen inguruko informazioa eta dagozkien eskaera inprimakien entrega eta harrera Herritar Harrerako Udal Bulegoetan egiteko aukera egongo da.

c) Urtero, udal komunikabideetan (webgunea, udal aldizkariak, bandoak...) publizitate kanpaina burutu, herritarrei BIZIGUNE eta ASAP programen inguruko informazio egokia eskainiko zaiela bermatuz. Kanpainaren diseinu eta programazioa Alokabiderekin koordinatuta egingo da.

d) Aurreko klausulan ezarritakoarekin bat etorrira, uneoro etxebizitza hutsen udal zerbitzuen kudeaketa Sailak eta Alokabidek ezarrita dituzten zerbitzuekin koordinatzea sustatu eta helarazi, harrera herritar egokia eta etxebizitza hutsen ahalik eta lagapen kopuru handiena bermatzeko.

e) Indarrean dagoen legediarekin bat etorrira, Saila eta Alokabideri udalerrian dauden etxebizitza huts eta hauen pertsona titularren inguruko datuak elarazi, programaren zerbitzura jartzeko helburuarekin.

LAUGARRENA.- BIZIGUNE eta ASAP programetan sartutako etxebizitzaren esleipen sistema eta irizpideak Sailak zehaztutakoak izango dira.

BOSGARRENA.- Bi aldeek etxebizitza hutsa mobilizatzeko helburua erdiesteko neurri fiskal edo bestelako bideragarritasuna aztertu eta bultzatuko dute. Adibidez, ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobaria ezartzea bere etxebizitza programen zerbitzura jartzen duten jabeen, obra lizentzia tasaren hobaria etxebizitza egokitzeko beharrezkoa diren kasuetarako, jabeen ordaindu beharreko errenta osatu, birgaitzerako laguntza zuzenak... edota etxebizitza hutsa eskuratzeko udalak zein Alokabidek egoki ikusten duten bestelako neurri

SEIGARRENA.- AKORDIO honetan aurreikusitakoaz gain BIZIGUNE- Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuan eta ASAP "Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa" Programa arautzen duen irailaren 17ko 144/2019 Dekretuan xedatutakoak ezarriko da.

ZAZPIGARRENA.- AKORDIO honek Eusko Jaurlaritzak BIZIGUNE edo ASAP programak indarrean mantentzen dituen bitartean edo aldeetako batek edozein arrazoiengatik hiru hilabeteko aurreikuspenarekin eta aurreabisu frogagarriarekin, salatzen ez duen bitartean, izango du eragina.

ZORTZIGARRENA.- Alokabidek eta Udalak AKORDIO honen Jarraipen Batzorde bat osatzea beharrezkoa ikusten dute, erakunde bakoitzeko ordezkari bana osatuta, eta zehaztutako konpromisoa eta aurreikuspenen exekuzioa behatu eta, orokorrean, etorkizunean suerta litekeen gorabehera ororen ardura hartzeko helburuarekin.

Eta adostasuna eta fede ona adierazteko, agiri hau sinatzen dute goiburuan adierazitako leku eta datan.

10.- Gizarte Larrialditarako Laguntzak kudeatzeko araubidea onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen dira oinarri arautzaileak.

BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS DE EMERGENCIA SOCIAL Y DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS MUNICIPALES.	GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN ETA UDALAREN LAGUNTZA EKONOMIKOEN OINARRI ARAUTZAILEAK.
Las Ayudas de Emergencia Social (AES) y las Ayudas Económicas Municipales (AEM) son subvenciones económicas, destinadas a aquellas personas cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario.	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eta Udal Laguntza Ekonomikoak (ULE) dirulaguntzak dira. Ohiko edo ezohiko gastu espezifikoek aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat dira.
1. FUNDAMENTACIÓN	1. OINARRIAK
-MARCO NORMATIVO	-ARAU ESPARRUA
La Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, y la Ley 4/2011, de 24 de noviembre que la modifica, regulan las prestaciones económicas y los instrumentos orientados a la inclusión social y laboral. El artículo 11.2 del Decreto 4/2011 de 18 de enero de las ayudas de emergencia social, indica que la cuantía aplicable en cada caso particular, deberá ser minorada por el Ayuntamiento competente, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias existentes.	Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak eta hura aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak arautzen dituzte. Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 11.2 artikulua adierazten duenez, kasu jakin bakoitzean aplikatu beharreko zenbatekoa murriztu egin behar du eskumena duen udalak, dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.
-PROPUESTA	-PROPOSAMENA
Los conceptos de ayuda que se modificarían son aquellos relacionados con las NECESIDADES PRIMARIAS: gastos no cubiertos por los diferentes sistemas públicos, tales como gafas, dentista y gastos derivados de la formación (transporte a EPA o a cursos de formación de Lanbide ...etc)	Aldatuko lirarekeen laguntza-kontzeptuak OINARRIZKO PREMIEKIN lotutakoak dira: sistema publikoek betetzen ez dituzten gastuak, hala nola betaurrekoak, dentista eta prestakuntzaren ondoriozko gastuak (HHEra edo Lanbideren prestakuntza-ikastaroetara garraiatzea, etab.).
2. REQUISITOS	2. BETEKIZUNAK
Requisitos afectados: • <u>AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL:</u> La concesión de las ayudas por éste concepto (necesidades primarias), no se considerarán prioritarias, valorándose al final del ejercicio, en función de la disposición presupuestaria que en materia de AES concede a éste municipio el Gobierno Vasco. Las ayudas que sí tendrán la consideración de prioritarias, son las relacionadas con los siguientes conceptos: -alquiler de vivienda, -intereses y amortización de créditos de vivienda -energía -mantenimiento de vivienda • <u>AYUDAS ECONÓMICAS MUNICIPALES</u> Con carácter general se les aplicará la misma normativa que a	Eragindako betekizunak: • <u>GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK:</u> Kontzeptu horrengatik (premia oinarrikoak) laguntzak ematea ez da lehentasunezko hartuko, eta ekitaldiaren amaieran baloratuko da, Eusko Jaurlaritzak GLLen arloan udalerrri horri ematen dion aurrekontu-xedapenaren arabera. Lehentasunezko joko diren laguntzak honako kontzeptu hauekin lotutakoak izango dira: - etxebizitza alokatzea, - etxebizitza-kredituen interesak eta amortizazioa - energia - etxebizitza mantentzea • <u>UDALAREN LAGUNTZA EKONOMIKOAK</u>

<p>las AES, salvo en las ayudas para las necesidades primarias:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gastos de dentista y para la adquisición de gafas: La persona solicitante deberá estar empadronada en Idiazabal en el momento de solicitar la ayuda, con al menos 6 meses de antigüedad en la Comunidad Autónoma Vasca, de los cuales, los 4 últimos deberán ser en el municipio de Idiazabal. - Gastos derivados de la formación (transporte a EPA, a cursos de formación de Lanbide ...etc). La persona solicitante deberá estar empadronada en Idiazabal en el momento de solicitar la ayuda, no exigiéndosele un período de antigüedad previo a la solicitud. <p>Se dará prioridad a aquellas necesidades que estén recogidas en el convenio de inclusión o en la intervención social municipal.</p>	<p>Oro har, GLLei aplikatzen zaien araudi bera aplikatuko zaie, oinarritzko premietarako laguntzetan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dentista-gastuak eta betaurrekoak erosteko gastuak: Eskatzaileak Idiazabalen erroldatuta egon beharko du laguntza eskatzen duenean, eta gutxienez 6 hilabeteko antzinasuna izan beharko du Euskal Autonomia Erkidegoan. Azken 4 hilabeteak Idiazabalen izan beharko dira. - Prestakuntzatik eratorritako gastuak (HHEra garraiatzea, Lanbideren prestakuntza-ikastaroetara joatea, etab.). Eskatzaileak Idiazabalen erroldatuta egon beharko du laguntza eskatzeko unean, eta ez zaio eskatuko eskabidea egin aurreko aldizkako antzinasunik. <p>Lehentasuna emango zaie gizarteratzeko hitzarmenean jasotako premiei edo udalaren esku-hartze sozialean.</p>																						
<p>3. AYUDAS ECONÓMICAS MUNICIPALES. CRITERIOS DE CONCESIÓN POR CONCEPTOS</p>	<p>3. UDALAREN DIRULAGUNTZAK. LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK KONZEPTEUKA</p>																						
<table border="1"> <thead> <tr> <th>Concepto</th> <th>Cuantía máxima anual por solicitante</th> <th>Observaciones</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Gastos de dentista</td> <td>1.000€</td> <td rowspan="2">Para ser prioritario, 4 meses de empadronamiento en la localidad, en caso contrario, se valorará al final del ejercicio.</td> </tr> <tr> <td>Gafas</td> <td>200€</td> </tr> <tr> <td>Gastos derivados de la formación</td> <td>600€</td> <td>No se exige empadronamiento previo a la solicitud.</td> </tr> </tbody> </table>	Concepto	Cuantía máxima anual por solicitante	Observaciones	Gastos de dentista	1.000€	Para ser prioritario, 4 meses de empadronamiento en la localidad, en caso contrario, se valorará al final del ejercicio.	Gafas	200€	Gastos derivados de la formación	600€	No se exige empadronamiento previo a la solicitud.	<table border="1"> <thead> <tr> <th>Kontzeptua</th> <th>Eskatzaile bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa</th> <th>Oharra</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Dentista gastuak</td> <td>1.000€</td> <td rowspan="2">Lehentasunezkoa izateko, 4 hilabe-tez herrian errol-datuta egotea; bestela, ekitaldia-ren amaieran baloratuko da.</td> </tr> <tr> <td>Betaurrekoak</td> <td>200 €</td> </tr> <tr> <td>Prestakuntzaren ondoriozko gastuak</td> <td>600€</td> <td>Ez da eskatzen eskaera egin aurretik errolda-tuta egotea</td> </tr> </tbody> </table>	Kontzeptua	Eskatzaile bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa	Oharra	Dentista gastuak	1.000€	Lehentasunezkoa izateko, 4 hilabe-tez herrian errol-datuta egotea; bestela, ekitaldia-ren amaieran baloratuko da.	Betaurrekoak	200 €	Prestakuntzaren ondoriozko gastuak	600€	Ez da eskatzen eskaera egin aurretik errolda-tuta egotea
Concepto	Cuantía máxima anual por solicitante	Observaciones																					
Gastos de dentista	1.000€	Para ser prioritario, 4 meses de empadronamiento en la localidad, en caso contrario, se valorará al final del ejercicio.																					
Gafas	200€																						
Gastos derivados de la formación	600€	No se exige empadronamiento previo a la solicitud.																					
Kontzeptua	Eskatzaile bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa	Oharra																					
Dentista gastuak	1.000€	Lehentasunezkoa izateko, 4 hilabe-tez herrian errol-datuta egotea; bestela, ekitaldia-ren amaieran baloratuko da.																					
Betaurrekoak	200 €																						
Prestakuntzaren ondoriozko gastuak	600€	Ez da eskatzen eskaera egin aurretik errolda-tuta egotea																					
<p>Los Servicios Sociales serán quienes valoren si se trata de una solicitud prioritaria.</p>	<p>Gizarte Zerbitzuek baloratuko dute lehentasunezko eskaera den ala ez.</p>																						
<p>Para el resto de cuestiones será de aplicación lo establecido en la Ley 18/2008 para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, el Decreto 4/2011 de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social y demás normativa de desarrollo que resulte de aplicación.</p>	<p>Gainerako gaiei dagokienez, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako garapen-araudian ezarritakoa aplikatuko da.</p>																						

11.- Martxoak 8ko adierazpen instituzionala onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen da.

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekarietatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealtatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeke eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Idiazabalgo Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa**-guneak babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea ikuspegi intersektionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.

12.- 2024ko lan egutegiari buruz informatzea.

Alkateak dio, nahiz eta horretarako beharrik ez dagoen, urtero Plenoari informatuko zaiola langileen egutegiari buruz. Aurten berandu izan den arren, asmoa dago azaroan egutegia finkatzeko (negoiazio mahaitik pasatuta) eta abenduan Osoko Bilkuran informatzeko.

13.- Abiadura Handiko Trenaren inguruko mozioa onartzea, hala badagokio.

José Agustín Urteagak azaltzen du Nafarroako AHTa euskal Yarekin lotzeko alternatibekin lanean ari dela Ministerioa eta hemen inguruan eragingo lituzkeen ondorioak kontatzen ditu.

Posible da horren aurkako atxikipen pertsonala burutzea, Udaleko ordezkari bezala. Horretarako martxoaren 15erarte aukera dago Udaletxean eskuragarri dagoen dokumentua sinatzeko.

Udal bezala ez da mozioa bozkatzeko, erabakitzen da datorren hilabeteko Osoko Bilkurara eramatea.

14.- Galderak eta eskaerak

- Tentsio Altuko Lineak Idiazabalen nola eragingo duen komentatzen da.
- Alkateak dio Frontoiko sukaldea bukatzeaz dagoela eta taberna datorren astean irekitzeko asmoa dagoela.
- Alkateak dio Pilarreneako kanpaiaren obra uste baino garestiagoa izango dela, tuboa handiagoa izatea espero zelako eta zabaldu arte ezin izan delako hori jakin.
- Bizikleta garbitzeko gailua martxan jarri dela esaten du Alkateak.

Eta beste ezer esatekorik ez dagoela, bilera 18:55etan bukatzen da.

Alkatea

Idazkari-Kontuhartzailea